

FILOSOFIA PERTSONALISTAREN MAISU BAT: KARLOS SANTAMARIA

JOXE AZURMENDI

Santamariak, E. Mounier oroitzuz (*El Ciervo*, 75eko maiz-tza), “haren ume izpiritual antzekoak izan ginen, eta hark aldarrikatzen zuen itxaropen kristauaren umeak halaber”, aitortu zuen behin. “Orain Mounier pasea dago modatik”, jarraitzen zuen. Baina aplikazio hau emanez: Mounier-en lan intelektualak iraun ez badu, izan da, ez zegoelako iraupenerako pentsatua. Ez, heldu gabekoa omen zelako, autorea gazterik hil zenez gero, batzuek arrazoitu duten eran, edo antzeko beste ezergatik. Ekintzaldiko eta borrokaldiko pentsamendua zen. Egun-eguneko gorabeheretan murgildu zen, berbertako gertaerari heldu zion beti, momentuari buruz definitu da haren pentsamendua, ibiliaren gainean, jarrerago bezala sistema bezala baino. “Bizitzen diren denborak izugarri kilikoloak direnean eta higikorrak, inguruan de-

na amiltzen hasi zaizula sentitzen denean, ez da une egokia obra suntsiezin bat eraikitzen hasteko”. Ez da inor hasten etxea jasotzen, lurrikara ari duen bitartean.

Mounier “un servidor del acontecimiento inmediato” hori izan zen. Horregatik haren obra bizi-bizia izan zen eta bizitu egin zuen bere momentua, argitu, indartu, bidea urratu. Ekintza izan zen haren hitza. Borroka izan zen haren pentsamendua.

Horrela definitu digu Santamariak E. Mounier (L'événement sera notre maître intérieur”, berak esaten zuen hark). Eta polita da, nolabait bere burua bait da horrela Santamariak definitu duena: bilakaera historikoari gogoetarekin lagun egitea, Santamariaren lana urte askotan izan da. Ikerketa bat behar du lan horrek. Zor zaio. Hemen ezingo dugu, ordea, puntu nagusitxo batzuk seinالاتu baino, zutabeak edo. Eta ideiak pixka bat situatu.

KRISI BATETIK BESTE BATERA

Menderdi nahasia izan da XX.aren lehen partekoa Europan. Gerra zibilaren ondoren, basakeria totalitaria mundu osoaz jabetzera zihoala zirudienean (“aquella España que nos pesaba como una losa sobre la espalda y de la que parecía definitivamente desterrada la libertad de ser persona”), Mounier-en irakurketan, *Manifestua pertsonalismoaren zerbitzuan* bezalako testuetan, izpiritua zut edukitzeko indarra zurgatzen zuen Santamariak. Zesaro-papismo lohi hartan, dio berak, kristaua izan zitekeela, erakusten zigun Mounier-ek, lotsagorritu behar izan gabe eta konplize izan gabe, “sin dejarse planchar el alma por el aparato eclesio-político”.

Krisialdian, balioak hankaz gora joaten hasten direnean eta gertakarien indarkeria erasoan datorrenean, fede bat behar izaten dela, esango luke Santamariak, filosofia bat izaten da behar, zurrunbiloak eramana ez izateko. Filosofia berdin fede hori Santamariak pertsonalismoan aurkitu du.

Zientziatik zetorren etorri, haatik, Santamaria, formazioz nahiz ofizioz. Zientzia modernoak eta zientziaren filosofia modernoak, konbentzionalistak, ez dute sinesten munduan, munduaren gauzazkotasunean (“errealitatean”): fisikak, eza-gutzen duenari, ez deritzo gauzazko mundua, baina xede batzuen arabera taxuturiko fakto experimental multzoa. Matematiko batentzat zenbakiak ez du deus errealik absolutuki adierazten, sinbolo eroso bat besterik ez da erraz operatzeko, berdin da zerena. Objektibitatea egin egiten da, zientzion us-tez. Errealitatea sortu egiten da, moldatu, eraiki. Teoriak egi-ten du. Ez dago emana aldez aurretik, gizonak men eginez atzemateko. (Moderniaren hastapenetan oraindik hala nahi bait zuen Bacon-ek). Unamunorekin eta Ortegarekin (behar-bada, barnago, Raisa eta Jacques Maritain-en Damasko bi-dearen oihartzun bat dago guztian), Santamaria oraingo “de-sesperantzaren kulturaz” mintzo da. Bere buruan fedea galdu duen gizaki modernoaz, “ezagutza-mota orotan konfidantza apurtuz”. “L’homme moderne ou, du moins, un certain type d’homme moderne, n’a pas seulement perdu la foi religieuse. Il a aussi perdu la foi en la raison”.

Bere buruaz apalago bilakaturiko arrazoimen hori, arra-zoimenaren apaltasun hori alegia, ongi dago zientzian. Zer egin, ordea, ekaitzak alde guztietatik zirimolan bizitza eraun-tsiz gero, balio tradizionalak, ordenu soziala, ohizko kultura, Ausschwitz-en dena kiskalduz eta erraustuz gero? Zer balio du ezagutzak eta, beraz, ezagutza moralak? Denak berdin “eraikidurak” ote dira baten eta bestearen moralitasunak; hor konpon bertan bizi behar duenak, nolako etxea nahiago duen berak hautatu? Dena subjektiboa ote da?

“Si un physicien peut eta doit accepter cette limitation par rapport à la science, à l’égard de sa propre existence il ne le peut, sans tomber dans la misère morale”.

Pertsonalismoa fede bat da, esango du Santamariak. Eta ez da irrazionalista (Lukács-i keinu-zeharka): “pertsonaren-gan fedea, arrazoimenean da fedea”.

Hain zuzen zientifiko bezala heldu da Santamaria pertsonalismora: zientziaren esparruan zientziakoa egiteko, bizitzan ordea bizitzakoa.

“Le néo-positivisme est justifié parce qu’il délimite l’objet scientifique et élimine les pseudo-problèmes; mais il n’apporte aucune solution qui permette de vivre raisonnablement les aspects négatifs de l’existence” (L’homme à la recherche de Dieu, Leclerquen omenaldi sortan).

Santamaria ezin geratu izan da filosofia analitikoan eta konbentzionalismo zientifikoan. Ez da, baina, horien hutsaltasunak izpirituetan kanpo libre utzita gerra inguruan bazter guztiak burrunban inbaditu zituen existentzialismora ere lerratu.

Mounier-en goritasunaz kontrastean, Maritain-en argi zorrotza. Sistematikoa. Askotan Santamaria jauna Maritain-en bitartez bezala mintzatu zaigu: hura iruzkinduz agertu digu bere pentsamendua, agian horregatixe terminologia eta planteamendu eskolastiko samarretan inoiz edo behin, Mounier-en literatura txinpartarian baino errazago beti ere. Gurbil, neurtu. Idazten ere matematiko bat.

(Besteak beste, Joan Mari Irigoienek *Jakin*-en omenalditxo egunean adierazi zidanez, Santamaria estilo bat ere izan da gure artean, beste hainbatekin alderatzen bada “intelektual”etarik: elegantzia xumetasunean).

Didaktiko beti.

Baina Maritain iruzkintzea, are publikoki defendatzea, lan polemikoa zen tenore hartan, ez zen hermeneutika akademikoa, axal-axaleko formetan baino. Santamariak berak honela adierazten zuen (*Jacques Maritain y la polémica del Bien Común*, Madrid, 1955):

“Por razones que no es éste el momento de analizar, pero que, según creo, tienen poco que ver con la filosofía, el simple hecho de mencionar a este pensador francés, como no sea para vituperarle, parece producir en algunos sectores de

opini3n un malestar y hasta una irritaci3n poco explicables o tal vez, si se quiere, demasiado explicables”.

Maritain-ek Francoren gerrari eta Eliza espainolaren jokatibideari gaitzeritzi egin zion, katoliko euskaldunen alde agertuz (errepublikazaleen alde alegia). Haren tomismoari, beraz, Salamankako domikutarren tomismo espainol eta jatorra altxatu zitzaion kontra: giro honetan, Maritain-ekin eskuan agertzeak, ulertzen da bai frankismoarentzat eta bai katolizismo espainolarentzat zer adierazi behar zuen.

Berrogeigarrenetan faxismoa eta hari loturiko Eliza versus erresistentzia; hirurogeigarrenetan aldagoika area guztietan (Kontzilioa, ETA, ikastolak, 68ko maiatza, etab.); larogegigarrenetan (postfrankismoa, demokrazia saioak) berriro egokiera bat asmatu behar bizitzari: krisi batetik bestera atsedengabe ibili da Santamariaren pentsamendua, denboraren bilakaera larriari erantsita. Gertaerari atxekita pentsatu: baina pertsonalismoa bera da, barneenean, krisi-filosofia bat, pertsona ere oraingo denboran pentsatzen da eta. Alta bada, krisi denborak dira oraingoak, pertsona krisian dago, krisian bilatzen da zer den pertsona.

KRISI-FILOSOFIA BAT

Ez litzateke egokia, eta ez da, pertsonalismoaren definizio (ez dagoen) batekin hasi nahi izatea, hura tesi-multzo batzuetan banatuz jarraitzeko gero, sistemaren kapitulu esplikatuzkoetan. Aitortza batekin hasterik ez dagoen moduan, gero praktikara joateko. “Ne partons pas d’un personnalisme en soi” (Mounier). Praxian erakusten da fedea: pertsonalismoaren definizioa eginean-eginean heldu behar da.

De facto Euskal Herrian ibili dena, Santamaria ere inspiratu duena, 30.etakoa pertsonalismo frantsesa izan da, *Esprit*-en ingurukoa. Emmanuel Mounier (1905-1950) eta Jacques Maritain (1882-1973) filosofoak izan dira bi Maisu gai-

lenak. Zentzu zabalago batean, *Iturriak*-eko Bergson ere pertsonalistatzat jotzen da batzuetan (E. Salaberry oso zalea genuen Bergson-ena, “gure mendeko San Agustin paregabea”), Frantzian bizitako Berdiaeff errusiarra, eta abar.

Mounier, 1925-1935 alde horretan, gaindiezinezko miseria ekonomikoan eta lardaskeria politikoan “crise totale de civilisation” bat diagnostikatuz azken finean, irtenbide baten bila abiatu da bere indar guztiekin. Ernazimentu berri baten bila. (“Refaire la Renaissance”, *Esprit*-en lehen zenbakian, 1932ko urria). 1935ean Brusselan irakasle dago. Faxismoaren eta komunismoaren itsasgora da, konfrontazio sozial ikaragarriena Europa osoan: Etiopiako gerra, Espainiakoa, Fronte Popularra Frantzian, Hitler Alemanian. 1934ean *De la propriété capitaliste à la propriété humaine* publikatzen du. 36an, mundu osoan eskuz-esku zabalduko den *Manifeste au service du personnalisme*. Ondoko historia ez dugu jarraituko. Okupazioaren ondoren *Esprit* aldizkaria da Frantzia berrian agertzen lehena, arrakasta itzelez. Baina Mounier-entzat pozak ez du asko iraungo: 1950eko martxoan haren bihotz gaztea gelditu egin da tanpez. Santamaria hain zuzen Maritain-en filosofia politikoaz ikastaro bat ari zen ematen egun haietantxe Donostiako “Círculo de San Ignacio”n.

Maritain-ena bestelako historia da. Filosofia positibistatik eta zientzia esperimentaletatik pasea, krisi filosofiko eta pertsonal sakon baten ondoren, 25 urte zuela katolizismora konbertitua eta bataiatua Raisa emaztearekin batera. Gero txoago San Tomasen filosofiari lotu zaio. “Filosofia modernoetako doktrina guztietan hainbeste grinaz bidaiatua nintzen honek, eta desengainuak edo ezbaiak galantak baizik uztatu ez nuenak, arrazoimenaren argizte bat bezala somatu nuen orduan: nire bokazio filosofikoa bihurtua nuen bete-betean”. Hurrengo urteetan karrera zoriontsu bat eramango dute maritaindarrek pribatuki zein profesionalki. 1926an, Erromak Action Française mugimendu politikoa kondenatzean, Maritain gizartearen trantzeaz gogoetan biltzen da bere baitan, kristautasunaren menpegabezia politikatik eta historiatik, zibilizazioaren ustelaz, nola barnetik biziberritzeaz balio be-

rriekin, kristandade berri baten asmatzeaz. Komunismoen eta faxismoen goititzearekin, 34tik aurrera batipat (Raisa Maritain errusiar jatorriko judusa da) giza eskubideen arazoa larri-larritzen da, Estatuaren ahalmen eta mugena, pertsonaren arazoak oso-osoan. 1936an *Humanisme intégral* argitaratzen du arrakasta izugarritz mundu guztian.

Dena da krisia garai-garaiotan. Maritain-en hitzetan “humanismoaren tragedia” da. Baina leku honetan axolago zai-guna, krisiaren kontzientzia larria bera baino (kontzientzia hori beste askok ere izan du: nietzscheanoek, marxistek, etab.), pentsatzen den irtenbide pertsonalista da, pertsonaren berreskurapenezkoa bai liberalismo indibidualistatik, bai kolektibismoetatik (kapitalismoaren aurka, komunismoaren aurka). Hirugarren bide bat, baina ez zentrukoa.

Pertsonalismotzat pertsonari balio absolutua aitortzea ulertzen badugu, haren jatorri historikoa kristautasunean datza; filosofikoa, nolabait ere, Kant izan liteke (pertsonek helburu da, inoiz ez bitarteko). Gero, ordea, “se puede ser personalista de muchos modos”, bereizten du Santamariak, “que nada tienen que ver unos con los otros: Nietzsche y Proudhon también lo fueron a su manera”.

Bakoitza bere modukoa, pentsabide guztiok dira oraingo zibilizazioaren alternatiba-bilaketa gizaki edo pertsona tipo berri batengan zentratu dutenak. Nola berrezarri pertsona sistemaren oinarrian; eta nola berregin, sistemak puska-puskatuta daukan pertsona.

ESTATU MODERNOA: ARTEKARI MORALEN PREMIA POLITIKAREN GAINETIK

Pertsonalismo frantsesa asko interesatu da sozialki eta politikoki, Ebanjelioaren politika baten bila. Berdin izango da Euskal Herrian.

Politika, irakurtzen diogu Santamariari, erantzukizuneko edozeinentzat, obligazio bat bilakatu zaigu Estatu modernoan. Politikak dena inbaditu du, nahi badugu eta ez. Estatua gaur egun kulturaz, ekonomiaz eta lan arazoez adina hezkuntzaz arduratzen da, famili plangintzaz eta mendigoizaletasunaz beraz... Lehen tarteko erakunde autonomoen gain egoten ziren egitekoak, Estatu modernoak bere eskuetan hartu ditu, bizitza sozial guztiaz jabetuz. “¿Se imagina uno quizá a los secretarios de Estado de Carlos I dictando los planes de estudio de la Universidad de Salamanca?” (*La iglesia hace política*, Madrid, 1974).

Honek gutxienez bi arazoren aurrean jartzen gaitu, zuzenki tresna (alderdi, erakunde) politikoen eztabaidan sartzeko orain:

1. “Para compensar la deshumanización y la tecnificación de la política invasora, se hace preciso atribuir un lugar importante a las fuerzas morales de una sociedad” (Ib.).

Artekari moralon lan behinena kritika izango da.

Inportantziarik handiena eman beharko genioke oraintxe bertan ere puntu honi. Euskal gizartea gaixo dago: erakunde politikoak, boterearenak, autoritate moralak bezala paratu zaizkigu, errege eta sazerdote batera Arloterriko teokrazia berri batean, Demokrazia bait deritzote horri. Independentziarik inori aitortu nahi ez izatea, kritikarako autoritaterik da ez nahi izatea inori onartu, hots, sistematik (eskema politiko ezarrietatik) at espaziorik egon litekeela ukatzea. Burujope totalitariak, despotiko ilustratuak hain zuzen.

2. Bigarren arazoa da, Estatu horrek osoki beretzat nahi gaituela, eta erabaki beharra dagoela “cuáles son los aspectos formales de la naturaleza humana, en virtud de los cuales, el hombre es parte del Estado y debe servir, como parte, al Estado, y cuáles son aquellos otros aspectos formales en virtud de los cuales el hombre es un todo subsistente y debe ser servido por el Estado” (*J. Maritain y la polémica del Bien Común*).

Gurea bezalako gizarte batean, Eliza instantzia moral bortitzena da, guztiz garrantzizkoa izango da haren jokabidea, bai pertsonarentzat espazio libre batzuk salbatzeko Estatuaren hurrupatik, bai Estatuari buruz buru jomuga moralak ordezkatzeko pertsonaren izenean. Santamariaren “la Iglesia hace política”, zentzu honetan, “debe hacer política” ulertu behar da hobeto, apolitizismoaren aitzakiaz burua hondarpean ezkutatu gabe.

Santamariak Eliza munduan eta denboran inkarnatu bat nahi luke. Teinkak eta murruskadak egoteak ez du kezkatzen, “la tensión entre lo temporal y lo espiritual es, desde el principio del cristianismo, una de las constantes de la historia del mundo civilizado”. Problemarik ez egotea da, sana ez dirudiena. (Santamariak frankismoan idazten du, baina kontuok agian berdintsu balio beharko lukete). Ezta ere, ez dauka Elizak betiko “bere” esparruetan geratzerik (“el culto, la escuela, la familia, la moral pública, la organización eclesial”): “la iglesia no puede ser indiferente a los derechos de los obreros, a la organización económica de la sociedad, a las culturas y lenguas populares, a los procedimientos de gobierno, a las libertades cívicas, a la vida de las comunidades intermedias y a otras muchísimas cuestiones”, edo: “problemas como el de la contaminación y el equilibrio ecológico (1974!), la salud mundial, las fuentes energéticas, la violencia, la guerra, la criminalidad internacional.”

Santamariak —leunkiro— badu Elizaren kritikarik ere. Baina orain, haren izpirituan aurreragokoa dena, instantzia moral autonomoen garrantzia behar genuen azpimarratu.

1950: POLITIKAREN BIRDEFINIZIORANTZ

1950ean Santamariak “La filosofía política de J. Maritain” gaiaz ikastaro bat eman zuen Donostian: orduan behar ohi zuenez, beste baten iruzkinean sartu zuen Santamariak bere pentsamendua.

Jakite politikoa jakite praktikoa da, hots, morala. Politikaren kontzeptu hau “fisizismo politikoa”ri kontrajartzen zaio: politikan teknika soila ikusi nahi lukeen grinari. Politika, teknika gisa, arau enpirikoez burutzen da eta balorazio utilitari hutsetan orientatzen da. Fisizismo politikoa ez legoke beste filosofia politikorik hori baino. Boterearen eta arrakastaren zerbitzuan legoke jakintza politikoa. Aitzitik, pertsonaren eta gizartearen zerbitzuko suposatzen bada, filosofia politikoa (eta berdin: ekonomikoa, etab.) moralaren atal bilakatzen da: ez bere aplikazioetan moralaren menpe legokeena soilik, fisika ere badagoen legez, “sino que su trama misma es de carácter ético-moral”.

Honen ondorio hurrenekoak, inmediatekoak, ezustekoak atera litezke norbaitzuentzat: zientzia teorikoetan printzipioak direnak, praktikoaetan helburuak dira. Hortaz, filosofia politikoa ezin lezake alden giza bizitzaren azken jomugaren arazoa; beraz, teologia.

Horrekin politika ez dugu teologia bihurtu: bere autonomia gordeko du, baina izango da “une science d’un objet profane et temporel, qui juge et connaît cet objet dans la lumière des principes révélés”, Maritain-en esanean. Politika metafisikarekin lotzen dela, aitor liteke orobat: “La Metafísica es una condición necesaria de la moral” (C. Santamaria).

Azkenntasunen maila horretatik historikora jaitsiz, politikaren birdefinizio beharra esperientziak berak ezartzen digu: “humanismo antropozentrikoaren tragediak”.

Zer da gizona: zein da haren jomuga, eta zer ikusi behar du historiak haren jomuga horrekin? Erdi Aroak (noizbait Santamariak ironiaz baloratu du: “Je ne sais pas si l’homme du moyen âge était aussi croyant qu’on le prétend. Il était, en tout cas, fort crédule”), nolabait esan, gizona ahaztu zuen Jainkoarengatik. Ernazimentuak alderantzizkoa egin zizun orduan.

“El mal del humanismo no era el ser humanismo sino el ser antropocéntrico, el haberse olvidado de Dios. Este antropocentrismo degenera en tragedia cuando el darwinismo —la

descendencia del mono sin discontinuidad metafísica— y el freudismo —que reduce al hombre al mundo subterráneo del instinto y del deseo, a la adición del libido sexual y del instinto de la muerte— acaban por arrastrar al hombre por el barro. El hombre abdica entonces su dignidad y queda abierto el camino para el absolutismo totalitario o marxista y para todas las miserias actuales”.

Hortxe gauzkazu orain: nora gabe, tragediaren puntuan. Hor hasten da gure lana.

OPTIMISMOA PREDIKATZEN

Intelektual Katoliko Frantsesen Aste-etan emandako hitzaldi pare bat aipatu nahi nuke hemen. Aurrenekoa 1951ko maiatzean emana, “Droits de l’homme et défense de la personne” izenburuarekin. Gerraondo gorrian Santamariak itxaropena predikatzen du.

Ez du engainatzen bere burua: hitz egin, erruz hitz egiten da pertsonaz, pertsonaren duintasunaz, eskubideez. Positiboa da: erakusten du, kontzientzia txar bat edo ikara bat bezala sentitzen duela gizarteak, ikusi diren botere-gehiegikeria eta bortxazko horroreen aurrean. Positiboa da NBEk aitortu izatea giza eskubideak: besterik ez bada, balio du protesta garrasi baten zentzuan bederen. Bestetik, estremoski urrun gaude pertsonaren egiazko gizarte batetik; hots, herrien bizitza printzipio pertsonalisten arabera antolatua edukizetik. Giza eskubideen aitortzaren esanahia bera, garbi ez beste edozer gauza dago, gizaki modernoaren beste autoafirmazio berri bat baizik izango ote den, Jainkoaren ukazioz.

Historia zentrubikoitza da (“l’histoire est ambivalente”), gauzak ez dira izaten onak ala gaiztoak, baina ongaiztoak erdizka. Fedezko ikusgunetik, pesimismoa birao litzateke: tragediarik negargarrienaren erdian ere ezin ahantz genezake, Berak duela historia gidatzen. Beraz, pertsonari buruzko

oraingo interes handituan kristauak, pertsonaren alde lan egin dezan edozeinek, aro berri baten egunsentia eskaintzen zaiola, itxaron lezake.

Hemen, baina, tipikoa da, pertsonaren aldeleari Estatuaren mehatxua gogoratzen zaio bapatean; itxaropenaren predikaria, zuhurtasunarena bilakatzen da: giza eskubideak aitortzerakoan, espaz eta zikoizkeriaz badabiltza ibili Estatuak beren artean formulazioa milimetroka neurtzen eta kalkulatzeko, Santamaria beldur da, "pertsonaren kontzeptu oso juridiko eta are oso diplomatiko, baina oso gutxi gizatiar" horrek, praxian giza eskubideen ezagutza eta hedakunde urri eta murri baino ezin bultzatuko duela. Estatu interesen menpe geratuko dira. Bigarren, giza eskubideen aitzakiarekin, Estatuak esfera pertsonal pribatua inbaditzeko arriskua ikusten du:

"On n'aime pas à voir les Etats remplir le rôle de maîtres de pères de famille ou de docteurs de l'Eglise. On n'aime pas à voir les Etats pénétrer dans le terrain de notre intimité personnelle, même à titre de défenseurs ou d'alliés de la personne".

Bigarren konferentzia, gaia "Eliza eta Zibilizazioak" zuen 1955eko Astean, "je viens des Espagnes", hasten da (pluralean): "Là, comme on le sait, on se pique d'orthodoxie". Santamariak planteatzen duen arazoa berriz ere itxaropenarena da: "Elizak sinesten al du zinez eta benaz munduaren etorkizuneari?". Lehenagoko larriak ahaztu eta gerrako triskantzatik berrizkatu ahala, Europa kontserbatismo gozoan loakartzen ari da berriro, teknologia berrien atseginetan. Santamariak mundu berri baten sortzera deitzen du: "Jainkoak ez du zibilizazioak monotonia amorragarri batean errepikatzea nahi. Aitzitik, gizatasunaren dohain berriak agerira daitezela nahi du, epifania gisako historia batean".

Badago tesi edo hipotesi bat, aurreritzi bat: izpiritua ezin litekeela joritu aisian, erreinu teknologikoan. Jende honentzat zibilizazio teknologikoa Babelgo dorre berri bat da. (Santamariak ere ezagutzen du aurrerapen teknologikoa materia-

lismo eta utilitarismo barreiatzaile bezala, cfr. "Técnicos al servicio de una concepción moral de la vida humana", 1958). Bestalde, aitortu beharra dago gerraosteko gizarte horri bere ahalegin "izpiritualak", lehenago sekula baino bizkorragoak, justizia eta berdintasun gehiago gizartean lortzeko, gosea munduan erremediatzeko, analfabetismoa, miseria, gerra gainditzeko. "Nire herkide batzuek", halere, eta adinekook ez ditugu ahaztu inkisizio horiek, "attribuent ce grand mouvement historique à je ne sais quelles mystérieuses forces secrètes, comme la maçonnerie ou le judaïsme international. Ils annoncent pour bientôt les pires catastrophes, des châtiments divins, en somme la destruction totale par Dieu de cette nouvelle tour de Babel qui est la civilisation technique". (Espainia hori Euskal Herrian gaur oraindik ez da nonbait kastatu).

Santamariak osteratzen du, gizonagan sinesten duenak, zibilizazioan sinestu behar duela, haren emanazioa bait da eta haren obra. Gizonagan sinestea Jainkoaren harenganako grazian baldin bada sinestea, izan ere, haren arrazoimeanean ere bai bait da sinestea: haren efikazian, bere lanarekin, bekatuaren ondorio makurretatik askatuz joateko bere burua. Santamariak historiaren bi filosofiok kontrastatzen ditu, orduan biak oso modan: "Contrairement au pessimisme et à la morne monotonie qui se dégage de la conception de Spengler, dans la vision du Père Teilhard on trouve un optimisme rationnel, secrètement inspiré par une foi religieuse très vivante". Fedeak argitutako errealismo politikoa-ren definizioarekin bategiten dugu ideian: fedeak argitutako historiaren filosofia orain. Dena dela, historiatik atzera gizonagana itzuli behar dugu, Santamariari nik inoiz irakurri diodan baitespenik biribilenetakoa dauka hemen eta:

"Gizonari uko egitea baino heresia larriagoa da apika, uko eginez gero gizonari, hura inola Jainkoagana bihurtu ahal izateko imajina litekeen edozien posibilitatez ere gabetzen da eta. Gizaki bat, absolutuki eskeptikoa bera arrazoimenari buruz eta ezagutza naturalari buruz, horrelakorik baldin badago, gauza ote litzateke fede supernaturala jasotzeko? Jakin ez dakit, baina ezetz uste dut".

ERREALISMO ETIKOA

Izatekotan, politikak errealista izan behar du. “Errealismoa” kontzeptu engainagarri bilakatua dago ordea.

Politikoari, arazo publikoen kargu egiten denari (edo interes publikoen aurrerapiderako bere delegazioa eskaintzen duenari, demokrazian), bere efikaziaren eta brebeziaren ziurtasuna eskatzea, ez da bere banitatearen edo hantustearen agiria eskatzea, baina funtsean bere moraltasunarena, ondo ulertzen bada.

Moraltasun politikoaren osagarrietako bat da efikazia. Indargintza edo biolentziaren kasu extremoan, modu extremotsuan ageri da efikaziaren baldintza moral mugatzailea:

“El éxito debe estar asegurado por anticipado con grandes probabilidades. La guerra que se pierde es siempre una guerra injusta, porque ha sometido al pueblo a grandes sufrimientos sin sacar ningún beneficio de ello. La eficacia es, pues, condición necesaria para cualquier clase de legitimidad de una acción armada” (Herria 2000 Eliza 28, 1980, 13).

(Irakaspen moral katoliko nahikoa tradizionala izana da hori: gaur honez gero ez dakit doktrina horrek berak zenbateraino emango duen onargarria —arriskuan gaude, fusila baino metraileta moralagoa deklaratzeko—, baina hemen axola zitzaiguna, edozein kasutan, Santamariaren azpimarraketa zen errealismo-exigentzian).

Errealismoari datuen faltagatik falta dakiok: politika ez da egiten ideiekin bakarrik (“esentziekin”), esistentziako eta kontingentziako baldintzen hastapen hertsiz baizik. Utopismoa (“esentzialismo politikoa”) praktikaezina da. Pseudorrealismoak dira: a) begibide falta: zirti-zarta kolpeka diharduen politika, eboluzioaren edo garapidearen printzipioak saihestuz. b) Positibismo eskuindarra (pesimista): gizona berez gaiztoa dela eta, goitik eta behetik eta albotik hain lotu-lotu egiten duena gizakia egitamu sozialetan, babesteko ai-

tzakiarekin askotan, gizarte hertsagarri bat eratzen bait du. Pseudorrealismo honen joera buruenean totalitarismoa da. c) Idealismo ezkertiarra (optimista): totalitarismora jotzen duena orobat. Gizakia berezko naturaz ona dela aurremanez, zorigaiztoko bihurtzen omen duen guztia historian errotik irazitako, klase borrokaz, iraultzaz eta proletalgoaren diktaturaz nolana hitz baliatzeko prest.

Ikuspegi guztion aurka Santamaria J. Maritain-i atxeki zaio (cfr. *La Filosofía política de Jacques Maritain*, San Sebastián 1950).

Hasteko, hasi, politika artez batek “ezin du utzi kontutan hartzea oinarrizko fakto bezala gaizkiaren presentzia historian”. Historia egina dagoen matazatik ezin dira bakandu gaizkiaren hariak eta moztu. Esan nahi du, historia, gaiztoa izan gabe, mesianismoetara ere azpiratu gabe, ambibalentea dela barren-barrendik: Jainkoaren erreinurantz aitzinatu ahala, historian garia ugaritzen den legez, oloa ere ugaritzen dela. Eta problema da, printzipioen argitara moraltasun mailako ongia eta gaizkia ezagun genitzakeen arren, gertaeren luzarorako *balioren* bereizketa berdinek ez dugula inoiz. Ezagunki, Jainkoak lerro okerretan zuzen idazten omen daki eta kalamitate izugarrienetatik bedeinkaziozko ondorioak jarraierazten. Filosofia konplexu bat dago guzti honen atzean. (Deabrua bera, teodizea honetan, Jainkoaren tresna da, ondo bere penaz). Santamariak hitzotan laburbildu digu filosofia horren muina:

“La teoría de la ambivalencia de la Historia y su aplicación al orden político es demasiado sutil para que no esté llena de peligros. Pertenece a la doctrina tomista la idea de que el sujeto de todo mal es siempre un bien, sea a título de sustancia o de persona, sea a título de acción. En este caso el mal que afecta la acción la desvía de su fin, pero no puede suprimir por completo el bien, que es su soporte. Asimismo, que Dios es la causa permisiva del mal, puesto que puede evitarlo. Y finalmente que el Bien divino es el único fin que Dios puede proponerse, o dicho de otro modo (...), que sólo Dios puede mover a Dios”.

Gogoetan lorpen praktiko bat, guretzat, jakinduria modu erlatibista, edo askatzaile, hauxe izan liteke: historian ezer ez dagoela osobeterik, bakoitzak bere koskitutxo portzelana guztiek edukitzen dutela berandu baino lehen umeak dabil-tzan etxean. Orduan geure xedeak ere ez ditugu absolutizatu-tuko, beste inoren proiekturik ere ez dugu betegintzat joko, errealiteren bat ez ukiezin sakratutzat, mundua zabalik geratuko zaie bultzada desberdinei eta geroari.

“Un sistema, una estructura política sólo podrá ser considerada como buena en relación con un clima, con un ambiente y una situación histórica y aun eso no de un modo estático, sino dinámico, como una línea de movimiento paralela a la del tiempo y la Historia”.

Tonto desinteresatuek eta listo interesatuek bakarrik hartzen dute erlatibismo hori denak berdin balio izatea bezala. Burutsuak, zuhurtasunezko bere lanaren abiapuntu modura ulertuko dizu.

Baina zuhurtasuna, birtute aristoteliko mazalena, zentzua ustelduta daukagu hori ere: eskuarki errezeloaz, mesfidaz, prekauzioaz berdintzen da. Tipo susmotxar eta maltzur-rari parekatzen da zuhurra (ebanjelioak berak sugea aipatzen du zuhurraren eredu: puntu polita nietzscheano baten dibertsiorako), onenean ere zuhurtasunaz efikazia adieraziko da. Elizaren zuhurtasunaz eta mintzatzean, aldiz, ez da urruti ibiltzen ohi oportunisto satsuen signifikatetik (igeri egin eta erropa ondo gorde). Diogun errealismo etikoan, zuhurtasuna birtutea izateko, ez teknika soil (jokoen teoria matematikoaren antzera), pertsegitzen den helburuak ontasun moral gisa (ere) egon beharra du definituta. Helburuak, alegia, ez du izan behar erdiespen tekniko kalkulatu (bakarrik), baizik ideal etikoa (“Prudencia política y eficacia”: *La Iglesia hace política*).

Ideal “erlatibo” honi Santamariak, Maritain-ekin, “ideal historiko konkretua” deritzo. Hori, Maritain-en beraren hitzetan, mito positibo bat da (“une essence idéale réalisable”), hots, “une *image prospective* signifiant le type particulier, le type spécifique de civilisation auquel tend un certain âge

historique”. Alegia, ez da programa politikoa, filosofia baizik, eta “berehalakoxearen filosofia politikorik ez da kabitzen: berehalakoa egina dago nolabait”. Alderantziz, politikan errealismo etiko batez jokatu nahi dezanak, ideal historiko konkretu hori eduki beharko du erreferentzia legez programa egiterakoan, gera ez dadin pragmatismo hutsean edo, Santamariak biluzki formulatu duen eran, “una majestuosa hipocresía” moderno eta demokratikoan.

Inondik ere umore oneko aldi batean idatzia “Política de lo imposible” saiotxo bixia da. Politika posiblearen artea omen delako esaeraren asmatzailea zein izan ote zen, galdezka, “mentalitate kontserbazaleko norbait izan zela, pentsatzen dut”, ironizatzen du. “Gizakumeren bat, ez fede eta ez esperantzaduna. Eta, hori baino gehiago, gizakume irudimen gabekoa”. Francoren garaiko “posibilistak” jorratzen baiditu ere, agian testuak ez du guztiz galdu oraindik oraintasuna:

«Durante cuarenta años, ¿qué hemos oído sino esto? —“Hacemos lo posible. Por ahora no se puede hacer otra cosa... sin perder el cargo. Si no estuviera yo, podría venir otro que diese marcha atrás. Los ‘demócratas’ no podemos abandonar los puestos”. Y así se justificaban las eternas presencias, desde las direcciones generales hasta las alcaldías pedáneas...»

Errealismo etikoa ez da konfunditu behar politikaren interpretazio posibilista horrekin: honen egiazko teoria etikoa probetxategismoa da. “A ella se han agarrado siempre los inútiles, los tímidos, los enchufistas y los tipos sin imaginación”.

ZIBILIZAZIO TEKNOLOGIKOAREN UHALDIA

Santamaria, politikaz beti txit kezkatua, programa edo Alderdi politikoez baino, hartako instantzia moralez arduratu da gehiago, politikan mediatoki bakarrik eragina dutenetaz

(hezkuntza, kultur tresnak, informazioa, etab.), Elizaz guztiz gain. Beti zuzen asmatzen ez badu ere bere lana, instantzia moral gorena historian Eliza da Santamariarentzat.

Bi iruzkin aipa ditzagun orain, bi testu eliztar ofizialenak: aurrena, Joanes XXIII.aren “Mater eta Magistra” entziklikarena, Belgiako *Service Social dans le monde* aldizkarian argitarata emana oraindik (1962, urtarrila); bigarrena, “Situación del hombre en el mundo”, 1968koa, BACek bildutako lankidetzetan publikatua Madrilen, kapitulu bat “Gaudium et Spes” Konstituzio Pastoral Kontziliarraren azalpenean (bada beste testu bat, funtsean berdina edukinean, Deustuko Unibertsitateak publikatua “La Iglesia y el mundo moderno” tituluaz). Bien artean denborak asko aldatu dira; iruzkilearen tonua ere diferentea da batean eta bestean. (Santamariak urteak lehenago aldarrikaturiko itxaropena, optimismoa, Kontzilioaren onespenez izan da saritua bitartean). Baina bietan arazoa bera da: nola jokatu, hedatzen ari den zibilizazio teknologiko berrian, pertsonari bere nagusitasuna eta garapena ziurtatzeko?

Behin baino gehiagotan errepikatua du Santamariak, egungo krisiaren arrazoi nagusia —ez klase-borrokan, materialismoan, ez dakit zertan— zibilizazio teknikoaren barrendiko eraginean datzala. Mundua birregiten ari da hori. Mundu berri bat ari da eraikitzen: pentsamenduan, kulturean; finen munduaren berrantolaera politiko, ekonomiko, sozial eta demografikoan ere.

“De modo análogo a las irrupciones de capas geológicas profundas sobre la superficie de la tierra, verdaderas revoluciones telúricas, los descubrimientos técnicos, al alterar desde abajo las bases materiales de la existencia humana, pueden llegar a conmover las capas más altas, la organización social, el pensamiento filosófico y las mismas creencias religiosas. Y esto es lo que está ocurriendo ahora; ése es el hecho característico de la crisis actual de nuestra civilización”.

Krisiarena ez da kontzeptu negatiboa (krisialdiko pentsamendutzat dugu goian pertsonalismoa bera definitu). “Jan-

senistak” deritze teknikaren beldurti kontserbakoiei Santamariak (Etienne Salaberry-rekin kointziditzen du, cfr. *Ene Sinestea*, 1978, 81, 99, 186). Ikuspideen iraulketa bat egon da: Antzinateak eta Erdi Aroak ikusi dute gizona mundu egindako batean eta bukatuan ainguratuta; mundu preterminatu batean predestinatua. Aldiz gaur ikusten da gizona, mundu hori bera egiten, eratzten, aldatzen. Gizona historian, ez egon dago, baina historia egin egiten ari da. Bere munduaren kreatora da.

Horrek ez du itzulirik. Ez du ezerk eta inork eramango gizadia bere gogoz uko egitera progreso modernoari; atzera goru eta kriseluetara bihurtzera, energia atomikoa baztertzea, zerebru elektronikoak arbuiatzera. Historiaren kontrakorronteko joera guzti horiek, iraganetako Arkadiaren batera bueltatu nahita, grabitate legeari alderantziz ibilerazi nahi izatea bezalakoxeak dira. Gandhiren gestuak, ausartu da ohartzera, balio handiko gestu sinbolikoak dira, munduak oso aintzat hartu beharrezko irakaspenez beteak: ez legoke jende ertainarentzat hedatzerik halere. Gizadia kondentatua dago martxan jarraitzera: prozesu hori gidatze asmatzea izango da kontua (besteak beste, ik. “Técnicos al servicio de una moral de la vida humana”, Publicaciones de la ESTE, 1958).

MASA GIZARTE MODERNOAN

Zibilizazio teknikoak gizona ere berria egin nahi du, “teknikaren antzera eta irudia” birsortuz. Adierarik materialeneraino, manipulazio genetiko eta; baina zentzu soziologikoan bereberki: “las colectividades humanas pueden ser tratadas, hasta cierto punto, como sistemas físicos o mecánicos. Se han inventado, por ejemplo, métodos de acción psicológica que permiten manejar masas humanas como si fuesen simples masas moleculares. Hay una dinámicas psicológica como hay una dinámica de los fluidos”. Deabrukeria teknologiko modernuokin (Hitler eta Txina komunista aipatu ohi di-

ra), botereak “sistemas prácticamente irresistibles de propaganda y de coacción política” dauzka.

Gizartekeran, teknologia modernoak masa-gizartea dakar. Artisautza ertarotarrak barruti domestikoak edo munizipalak bezala, espazio txikitxoak, teknologia modernoak bere kaizuko zabaldegi hedatsuak sortzen ditu bere desarroiloaren inguru: eremu ekonomikoak, urbanoak, humanoak, linguistikoak, kulturalak, garraio-medioetakoak, ideien zabal-kunderakoak. Sozaltasuna giza bizitzako arlo guztiak inbaditzen ari da. Lehen bat-bederak jasotzen zizun etxea bera bizitzeko, begiratzen zizun bere osasuna eta familiakoena, hezitzen zituen umeak eta lanbideren bat irakasten zien, deliberatzen zizun jai eta jolas nola egin, urte guztian familiar-teko ingurutxotik irten gabe hori dena. Orain gizarteak erakitzen ditu etxebizitzak, arduratzen da osasunaz, eskolatzen ditu umeak, arautzen du noiz lan eta noiz jai egin, nola jai eta jolas egin industria batean sarrerazten zaitu. “Gizarte” espektral hori, guztiok omen garena eta inor ez garena hura sentitzen, zehatz-mehatz inork ez dakusana zer edo zein den, non dagoen edo non ez ote dagoen zelatan, anonimatoan ezkututzen den subjektua, ez da Estatu soil. Industria da (gizakume baino enpresetako langile eta enplegatu zenbakumeak), merkatu guztia, hezkuntza, goizeroko egunkaria, autobus linea. Pribatuenerainoko geure bizitza. Geu, geure buruari arrotz, etsai.

Halere sinpleegia litzateke zibilizazio hori gaitzetsi eta kito geratu nahi izatea. Santamaria fenomeno historikuon ambigutasunaz mintzo da berriro (“ambivalencia propia de todo lo que es instrumental”, “carácter contradictorio y ambivalente del progreso técnico”). Izan ere, zibilizazio teknikoak ez da dudarik independentzia ere badakarkigula (gregarismoaz batera). Bizitza pertsonalerako erraztasunak eta aukera berriak (konformismo nagiaz batera). “En realidad se enfoca mal el problema cuando se considera que lo social y lo individual son como dos polos opuestos o contradictorios y que los progresos de lo social se realizan siempre a costa de lo individual”. Arazoa borrokan dago irtenbidea urratzeko gizo-

nari mundu pertsonalago batera. “Momentu honetan (1962) mundua bi mehatxu estremoren artean dabil harrapatuta: neoliberalismo ekonomikoa batetik, funtsean botere ekonomikoaren eskusibak atzapar pribilegiatu gutxi batzuetan segi dezan ahalegiten bait du, formula teknikoekin mozorroturik. Kolektibismoa totalitaria bestetik, gizonen arteko berdintasuna eta ondasunen banaketa lortzearren, Estatu erraldotsuki hipertrofiatu bati aitortzen dizkiola bizitza sozialeko barruti guztiak. Gizona salbatzea, gizadia salbatzea arrisku batetik zein bestetik, ez da lan arina”.

Astuntzen duena, gizonak bere buruaren kontzientzia nolabait galdua izatea da batipat. Fatalismo batek sarean harrapatuta egotea. Kulturaren krisiarekin daukagun pertsonaren beraren krisia alegia, “pertsonaren baitan kokatzen diren desorekak”. Ortega y Gasset-en lehentxeagoko heriotza omenez gogoratuz, 1955ean Santamariak honela formulatzen zuen egitekoa krisi honetan: “L’homme a besoin que l’homme lui soit révélé, que l’homme lui soit annoncé”.

“BANAKOA GIZARTEARENTZAT, GIZARTEA PERTSONARENTZAT, PERTSONA JAINKOARENTZAT”

Iraultza pertsonalista: iraultzailetzat eduki bait dute pertsonalistek beren proiektua. Mounier-en ideia, historiaren zentrua pertsona bihurtzeko, asmo erradikalki iraultzailea izan da, irakurtzen diogu Santamariari berari. Mundu zahar amiltzera doanaren alternatiba pertsonalistak, indibidualismo liberalaren bezain kolektibismo totalitari edo estatistaren aurka, “kristandade berria” nahi luke eraiki, orain hasi eta Historiako Aro Berria. Pertsonan egongo dena ardaztuta.

Historiko-kulturalki pertsonaren kontzeptua espazio kristauetako propioa da, ez da greko-latino klasikoa. Hori esan beharrak bere arrazoa du: mundu klasikoan, izan ere, gizona, kosmoan zein polian, hango zati soil gisa dago kokatuta. Sentidua osotasunak dauka eta hark (hiriko legeak, patuak)

eman diezaioke zatiari sentidurik, esleitzen dion rolaren arabera, berezkorik bestela ez du, autonomiarik ere ez duen eran (kosmo fisikoan ez eta gizarte politikoan ez gehiago). Kristautasunean, aldiz, gizakia han-hemen erdizka dago existentzian, mundu honekilako bai eta baita ere zeruarekilako, ez baten eta ez bestearenganako menpezian osotoro, baina biei lotuta eta biekiko une berean autonomo, hots, libre. Estatutu ontiko guztiz partikular, ireki honek ezagu erazten du “pertsonea”.

Pertsonalistek beren filosofian bereizketa bati eman diote garrantzi handia esandako horren arabera: alegia, gizakian bakoiztasuna (indibiduo) eta nortasuna (pertsonea) aparte ezagutzeari bi kontzeptu desberdin bezala. Santamariak diferentzia hori zenbait aldiz azaldu izan du (ik., *La filosofía política de J. Maritain*, 1950, V. Ikasgaia; *J. Maritain y la polémica del Bien Común*, 1955, 69-76). Halere beharbada iluntasun edo ezaskitasun inpresio bat geratzen da beti, pertsonalismoak propioki pertsona zer den ez daukanez gero definizio estrikotorik (pertsonea ez da zientifikoki, h.d., behaketaz eta enpirikoki defini litekeen objektu bukatu “itxi”rik, bere buruaren egilea baino). Santamariak, Maritain-ekin, materia (indibiduazaille) eta formaren terminologia eskolastikoan esplikatatu du, euskal irakurlerian ezagunegiak ezin suposa genitzakeen aurretiazkoengatik, ez bait diogu orain hertsikiegi jarriatu ahal izango. Zertxobait saiatuko gara, halere, ulertzen funtsezko ideia.

“Indibiduo”k bakuna esan nahi du, sinplea, numerikoki bakoitza espezie batean. Mila dortoketarik bat indibiduo bat da numerikoki (dortoka *hauxe*, zazpigarrena kontaketa batean) eta handik gora ezer ez da espeziea baino (*dortoka* bat). Zizeronek *atomo* hitz grekoa itzultzeko erabili zuen termino hau hain zuzen (zatigabekoa). Alegia, dortoka multzo batean, ezpeziean, dortoka indibiduala besteetatik haren materiazko masak bereizten du, ez noski bere dortokatasunak (formak): hori berdina du guztiekin. Dortoka bakoitza materia-multzo berezi bat da, hortaz, espezieko besteetatik ebakia edo berezia (*dividuus*), bera ordea ez azpizati edo subespezie gehiago-

tan ebakia dortoka bezainbatean (*in-dividuus*), baizik eta dortokaren propioak diren zatietan zatigarria hain zuzen (bizkar-oskola, magal-oskola, organoak, etab.). Espezieko indibiduo guztiak berdinak eta bat dira, numerikoki izan ezik: puntarik punta, espezieak determinatuak dira, zer izan, zer aritu. Hein honetan, gizakiak ere bai bait du hori, gizabana-koak gizarteari zor zaizkio.

Gizartean galduta (atomizaturik: liberalismoa) edo gizar-teak irentsita geratzen (inurriak izatetik: kolektibismoa) gizonak salbatzen dituen, beren pertsonatasuna da. Gizakiak bi forma bezala lituzke: bat espeziean ezartzen duena (gizatasunean), bestea pertsonatasunean bereizten duena (nitasunean, hau ez bait da berezitasun numeriko soila espezie-tako besteen aldean). Liberalismoak eta kolektibismoak berdina daukatena da, indibiduo bezala bakarrik ezagutzen dutela gizakia gizartean.

Pertsonarena kontzeptu positiboa da. Hau da, pertsona ez da negatiboki, “ez-ebakia”, “kanpotik determinatua”, ezaugarritzen: ez bada bere buruaren determinatzailea bera bere baitatik da, bere izatez eta ekintzaz, hots, izaera ihardulea da, bere da ihardunaren iturburua, munduari erantzulea eta ingurumenaren eratzailer horregatixe, libertate kreativea, erreinu moraleko kreatura. Gizabanako gisa baditu bere determinazio fisikoak, materialak; determinazio moralik ez du, bera da moralki bere bururaren determinatzailea, hots, pertsona da, ez banako soila espezie-barruan determinatua. Kosmo materiala, teknologikoa, politikoa, honen zerbitzariak dira, ez nagusiak. Ez haren determinatzaileak, daude izateko, baina hark libertatez determinatuak. Gizabanakoa gizar-teari bezala, gizartea pertsonari zerbitzeko dago (mundu naturala, mundu moralari).

Ohartxo bat iragaitzean. Ez dihardugu Santamariaren pentsamenduaren ikerketa definitiborik egiten, pixka bat kokatzen bakarrik bere situazioan, baina hemen hitz pare bat tokatzen da pertsonak definiziorik propioki ez edukitze horretaz. Orain apika errazago ulertuko da: zergatik pertsonalistek ez dute onartu nahi izan pertsonaren definizio klasiko

horietako bat (abere arrazoidunarena edo)? Definizioak ba- zeuden: Boetio, San Tomas, etab. Baina definizioak, defini- zioz, orokortasun espezifikoa (“inpertsonala”) adierazten due- lakoxe nahitaez, h.d., gizakiaren kasuan, indibiduoaren al- derdira garamatzalako beti nolabait, definizioan bil daitekee- nak, ez originaltasun eta libertate kreatzaile pertsonalera. Horregatixe, ba, pertsonalistak, “irrazionalismo” modernoen oso kontrarioak izan arren, ez dira gizakiaren arrazoidunta- sunean ere aparte hisiatuko: ezaugarri espezifikoa, ez per- tsonala, delako hori; edo, behintzat oso erraz uler daitekee- lako zentzu inpertsonalista batean (pertsona = arrazoimena = giza unibertsaltasuna).

Banakoak ezpeziaren legeen pean badihardu, pertsonak lege moralen pean dihardu eta lege horien ezarlea bera da bere kontzientziaz (*auto/nomoa* da pertsona, esanahi kantia- noan), ez arbitrarioki noski, bere nortasun libre intimoenari jarraiki baizik. Era horretan, indibidua munduan edozein dortoka edo inurri bezain bukatua eta determinatua den bi- tartean (bere espeziaren barruan), pertsonak bere burua absoluturantz “transzenditu”, gaudititu egiten duela esan ohi dugu. “Pour nous, chrétiens, la personne est transcendance, dépassement, nouveauté perpétuelle”, dio Santamariak.

“Elle est un mystère ou plutôt une source inépuisable de mystères, la présence dans le temps de quelque chose qui le dépasse infiniment. D’ailleurs, la personne est un monde, mais un monde incomplet, un monde sans équilibre et sans repos possible. Une réalité qui ne se suffit pas à elle-même, qui doit vivre toujours dans l’inquiétude et l’attente de Dieu”.

Transzendentzia, transzenditu: terminuokin ez da miste- riozko ezer lainotsu adierazten, ahalmen pertsonal oso sin- ple bat baino, oinarrizkoa halere pertsona zerk bereizten duen kosmoan ulertzeko, h.d., izaki naturalaren muga sub- jektibo determinatzaileak/deterministak gauditzea norbere obra propioz. Egia berri bat ezagutzea eta hari pertsonalki (ez intelektualki soil, ez mekanikoki) atxekitzea, norbere bu-

rua transzenditzea da; printzipio moral bati obeditzea konfliktu batean, interes egoistak besterik nahiago lukeenean, transzenditzea da gure naturarekiko menpetasuna; maitatzea da transzenditze klasikoena: askatasunaren eraikuntzaz naturtasuna gaintitzea bait da transzenditzea, mugarik ez duen, estekadurarik ez duen espazio ab/solutuan; hots, azkengabeki Jainkoaganantz aitzinatzen den pertsonaren eta gizadiaren desarroiloan. Horregatik, pertsona, Jainkoarentzat. Hau da, Jainkoagana eta Jainkoaren argitan ibili. Humanismo antropozentrikoaren tragedian baldin bagabiltza aspaldiko urteotan, Aro Berri pertsonalista bat ebanjelioak bakarrik inspira lezake, Santamariarentzat han bait daukagu non ikasi batera, bai zer den pertsona eta bai zer den Jainkoaren historia.